

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

GIZARTE POLITIKEN, ADINEKOEN ETA HAURREN SAILA

Vitoria-Gasteizen baliabide ekonomiko eskaseko pentsiodunek 2020ko lehen seihilekoan duten energia-gastuari aurre egiteko laguntza ekonomikoak emateko oinarriak

2020ko ekainaren 5ean egindako ohiko bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak baliabide ekonomiko eskaseko pentsiodunek 2020ko lehen seihilekoan ohiko etxebizitzan egiten duten energia-gastuari aurre egiteko laguntza ekonomikoak emateko deialdia eta oinarri orokorrak.

Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1. artikuluan xedatutakoaren ildotik, argitara ematen dira, denek izan dezaten horien berri.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko ekainaren 5ean

Administrazio Zerbitzuen burua
ROSANA URTARAN URTARAN

Baliabide ekonomiko eskaseko pentsiodunen energia-gastua finantzatzeko laguntzak emateko deialdia arautuko duten oinarriak

Lehena. Xedea eta dirulaguntza jaso dezaketen gastuak

Baliabide ekonomiko eskaseko pentsiodunek ohiko etxebizitzan duten energia-gastuari aurre egiteko laguntza ekonomikoak emateko oinarri arautzaileak ezartzea da deialdi honen xedea, hau da, bigarren oinarrian zehazten diren pertsonen elektrizitatearen, gasaren edo beste erregai batzuen hornikuntzagaratik egin beharreko gastuari dagokiona.

Gastu hauek lagundu daitezke diruz: 2020ko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era bitarteko elektrizitatearen, gasaren edo beste erregai batzuen kontsumoari dagozkionak, edo komunitate gastuak, horiek berokuntza barne hartzen badute.

Dirulaguntzak barne hartzen dituen hilabeteetan egindako energia-gastuagatik justifikatutako zenbatekoaren arabera izango da laguntza.

Edonola ere, laguntzaren gehieneko zenbatekoa 300,00 eurokoa izango da onuradun bakoitzeko, eta ezingo da izan hark laguntzaren xedearekin lotuta benetan ordaindu duena baino handiagoa.

Laguntza bi zatitan ordainduko zaio onuradunari: ehuneko 80, dirulaguntza emateko ebaizpenaren dataren hurrengo hilabeteetan, eta gainerako ehuneko 20a, berriz, gastuak justifikatu ondoren.

Onuradunek gizarte larrialdiko laguntzarik (GLL) jaso badute ohiko etxebizitza edo alojamendua mantendu ahal izateko, dirulaguntzak barne hartzen duen epean egindako gastuari energia-gasturako jasotako GLLari dagokiona kenduko zaio diruz lagun daitekeen gehieneko gastua kalkulatzeko.

Bigarrena. Onuradunen betebeharrak

Betebehar hauek betetzen dituzten pertsonak baliatu ahalko dira deialdiaz:

1. Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzea pentsio-osagarri gisa.
2. Eskabidea aurkezten den uneari dagokionez, azken 10 urteetan gutxienez 5 urtez Vitoria-Gasteizen erroldatuta egon izana, eta gutxienez urtebetez, modu jarraikian, eskabidea egin aurretik.
3. Ohiko etxebizitzarako elektrizitatearen, gasaren edo beste erregai batzuen fakturak ordaintzea, zuzenean edo zeharka (etxejabeen erkidegoari, errentatzaileari...). Laugarren oinarriko 2. atalean zehazten da nola egiaztatu betebehar hori.
4. Kontsumitzaile kalteberentzako bonu soziala—urriaren 6ko 897/2017 Errege Dekretuak eta urriaren 6ko ETU/943/2017 Aginduak arautua— eskatu izana.
5. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2. artikuluan onuradun izateko aipatzen diren debeku-egoeretako batean ez egotea.

Betebeharrak egiaztatzeari dagozkionetarako, Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 5. artikuluan definitutako bizikidetzaren unitatearen kontzeptua hartuko da kontuan.

Hirugarrena. Dirulaguntza emateko prozedura eta zenbatekoa

Deialdi honen xede diren dirulaguntzak emateko erregimena lehia askea izango da; alegia, bigarren oinarrian zehazten diren betebeharrak betetzen dituztelarik eskabidea epe barruan aurkezten duten pertsonak eskuratu ahalko dute dirulaguntza. Horrenbestez, deialdiko kredituaren gehieneko zenbatekoa modu proportzionalan banatuko da eskabidea onartzen zaien eskatzaile guztien artean.

Edonola ere, laguntzaren gehieneko zenbatekoa 300,00 eurokoa izango da onuradun bakoitzeko, eta ezingo da izan hark laguntzaren xedearekin lotuta benetan ordaindu duena baino handiagoa.

Laugarrena. Eskabideak eta agiriak aurkeztea

1. Deialdia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da eskabideak aurkezteko epea, eta bi hilabetekoa izango da.
2. I. eranskinetako inprimakia baliatuz egingo da eskabidea; interesdunak sinatuko du, edo ordezkari behar bezala egiaztatuta. Agiri hauek ere aurkezten beharko dira:
 - 2.1. Onuradunaren kontu korrontearen edo aurrezki libretaren lehenengo orriaren fotokopia.
 - 2.2. Elektrizitate, gas edo beste erregai batzuen hornikuntzarako indarrean dagoen kontratuaren kopia eta egindako gastuaren azken bi fakturak edo ordainagiriak.
 - 2.3. Bonu sozialaren eskabidearen kopia edo ebazpena.
 - 2.4. Laguntza eskatzailea eta ordainagiriaren edo banku egiaztagirien titularrak bera ez badira, agiri bidez egiaztatu beharko da bien arteko erlazioa. Ordainagiriak ordaindu direla justifikatzeko titularrari egindako banku transferentziaren egiaztagiria edo haren zinpeko aitortpena aurkeztu beharko dira, zeinean ordainagiritan zehaztutako zenbatekoa jaso duela adieraziko baitu, NAN/AIZren kopia erantsita.
3. 2019an eskuratutako laguntza osoa edo zati bat justifikatu gabe duten pertsonen ukatu egingo zaie eskatutako dirulaguntza.
4. Aurkeztutako eskabideen gaineko ebazpena albait egokiena izan dadin, beste agiririk ere eskatu ahal izango du Vitoria-Gasteizko Udalak.

5. Prozedura tramitatzeko administrazio publikoen esku dauden datuak erabili behar dira. Hori dela eta, eskabide-ereduan berariazko baimena emango zaio organo kudeatzaileari datuen benetakotasuna egiaztatzeko behar diren lanak egiteko. Organo kudeatzaileari baimen hori ematen ez bazaio, datu horiek egiaztatzeko dokumentazioa erantsi beharko da, prozeduraren arauetan ezarritakoari jarraituz.

Bosgarrena. Prozeduraren instrukzioa, balioespena eta proposamena

1. Herritarrei laguntzeko bulegoetan eskabideak jaso ondoren, Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Sailak egiaztatuko du behar bezala beteta dauden eta oinarri hauetan eskatutako agiriak erantsi diren.

2. Eskabideek ez badituzte oinarri hauetan xedatutako betebeharrak betetzen, eskatzaileei hamar egun balioduneko epea emango zaie akatsak konpontzeko edo falta diren agiriak aurkezteko, Herri Administrazioen Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikulua ildotik. Halaber, ohartaraziko zaie hala egin ezean eskaera bertan behera utzizat joko dela, dagokion ebazpenaren bitartez.

3. Orobat eskatuko zaio eskabidea zuzentzeko baldin eta laugarren oinarriko 4. atalaren ildotik egindako egiaztapenetatik ondorioztatzen bada eskatzaileak ez dituela zerga-betebeharrak bete edo Gizarte Segurantzarekikoak ordaindu, edo beste agiriren bat erantsi behar badu.

4. Aurreko paragrafoan ezarritakoaz gain, prozedura tramitatu eta ebazteko beharrezko den edozein datu, dokumentu osagarri edo argibide galdatu ahalko zaio eskatzaileari.

5. Oinarrietan edo aplikatzekoa den araudian jasotako eskakizunak betetzen ez dituzten dosierak, edo behar diren agiriak erantsita ez dauzkatenak, organo instrukzio-egilearen esku utziko dira, ez onartzeko ebazpen-proposamena egin dezan; bertan ez onartzeko arrazoiak azalduko dira.

Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Sailak egindako txosten teknikoari jarraituko zaio eskabideak balioetsi eta emateko hasierako proposamena egiteko.

Seigarrena. Dirulaguntzak emateko ebazpena

Eskabide bakoitzari dagozkion tramiteak bete eta txosten teknikoa egin ondoren, kide anitzeko organoak —Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Saileko zuzendariak, Komunitate Jardueraren Zerbitzuko buruak eta Prestazioetako eta Gizarteratzeko buruak osatua— dirulaguntza eman edo ukatzeko proposamena egingo du, eta Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Saileko zinegotzi ordezkariari helaraziko dio, hark onetsi dezan.

Alderdi hauek adierazi beharko dira dirulaguntza emateko erabakian: onuradunaren izena, diruz lagun daitekeen epea, hileko zenbatekoa eta orotara ordaindu beharrekoa.

Ebazpena, arrazoitua izango baita, gehienez hiru hilabeteko epean emango da —eskabideak aurkeztu den egunetik kontatuta—, eta eskatzaileei jakinaraziko zaie; orobat zehaztuko da erabakiak amaiera ematen diola administrazio bideari, eta haren kontra zein errekurtso aurkeztu dezaketen, zein organoren aurrean eta zein epetan.

Ebazteko gehienezko epe hori igarotzen delarik berariazko ebazpenik eman ez bada, dirulaguntza eskabidea ezetsi egin dela ulertu beharko da, Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzei buruzko ordenantzan xedatutakoaren ildotik.

Zazpigarrena. Onuradunen betebeharrak

Udalaren egiaztatze ekintzen mende jartzea, baita bertako Kontu-hartzailetza Nagusiari dagozkion finantza-kontrolerako ekintzen mende ere.

Laguntza emateko orduan kontuan izandako edozein zirkunstantzia objektibo nahiz subjektibo aldatuz gero, Udalari jakinaraztea.

Laguntza eskabidea ulertu eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen den informazio eta agiri osagarri oro Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Sailaren eskura jartzea.

Diruz laguntzekoa den epeko energia-gastua justifikatzea, ordainagiri eta ordainketa-egiaztagirien bidez.

Zortzigarrena. Kredituak

2020ko ekitaldirako aurrekontu-aplikazioaren kontura finantzatuko da laguntzen kostua —30.000,00 euroko zuzkiduraren barruan—. Beraz, uztailaren 21eko 887/2006 EDaren 56. artikuluan xedatutakoaren ildotik, dirulaguntzak ematekotan nahiko kreditu izan beharko du deialdia ebazteko orduan.

Bederatzigarrena. Bestelako dirulaguntza edo laguntzekiko bateragarritasuna

Deialdi honetan aurreikusten diren dirulaguntzak bateragarri izango dira helburu berarekin beste edozein erakunde publiko edo pribatuk ematen dituenekin, deialdiaren xede den energia-gastuan gain-finantziatorik gertatzen ez den bitartean.

Hamargarrena. Dirulaguntza ordaintzea eta gastuak justifikatzea

1. Ebazpena onetsi ondoren, banku transferentziaren bidez ordainduko zaio laguntza onuradunari, eskabidean adierazitako kontuan.

2. Oinarrien lehen puntuan xedatutakoaren ildotik, laguntza bi zatitan ordainduko zaio onuradunari: ehuneko 80, dirulaguntza emateko ebazpenaren dataren hurrengo hilabetean, eta gainerako ehuneko 20a, berriz, gastuak justifikatu ondoren.

3. Dirulaguntza eskuratzeko eskabidea ebazten denetik gehienez 2 hilabeteko epean onuradunak herritarrei laguntzeko bulego batean egiaztatu beharko du diruz lagundutako gastua, eta fakturak edo ordainagiriak nahiz dagozkion ordainketa-egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu horretarako.

Justifikatutako zenbatekoak jasotako laguntza bestekoa edo hortik gorakoa izan beharko du, lehen oinarrian gizarte larrialdiko laguntzen jasotzaileentzat aurreikusitako doitzeta gorabehera.

Jasotako laguntza osoa justifikatzen ez bada, bidegabe jasotako laguntzak itzuli beharko dira.

Ez dira baliozkoak izango aipatutako datuak zehazten ez dituzten banku ordainagiri edo egiaztagiriak, ez eta zuzenketa edo ezabaketarik dutenak ere.

4. Berokuntza-gastuak komunitatearen barruan sartzan direnean, transferentziaren banku-egiaztagiriaren bidez justifikatuko da, edo jabeen erkidegoak eman eta sinatutako ziurtagiriaren edo ordainagiriaren bidez. Batean zein bestean, ordainagiriaren titularra, helbidea, hilabetea eta ordaindutako zenbatekoa zehaztu beharko dira.

5. 2019an ohiko etxebizitza edo alojamendua mantendu ahal izateko gizarte-larrialdiko laguntzak jaso dituzten onuradunek ez dituzte aipatutako agiriak aurkeztu beharko baldin eta aurretik laguntza horiek justifikatzeko aurkeztu badituzte Vitoria-Gasteizko Udalean.

6. Nolanahi ere, Vitoria-Gasteizko Udalak betebeharrak betetzen direla egiaztatze beharrezkotzat jotzen duen agiriak oro eskatu ahal izango ditu, baita kontrol-ahalmenak baliatzeko beharrezko direnak ere.

Dirulaguntza justifikatzeko dokumentazioa Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Sailari zuzendu beharko zaio, eta Vitoria-Gasteizko Udalaren herritarrei laguntzeko bulegoetako batean aurkeztu ahal izango dira, edo zuzenbidean onartzen den edozein modu baliatuz.

Hamaikagarrena. Dirulaguntza itzultzea

Organo eskudunak ofizios eskatuko du jasotako laguntza itzultzeko, bere ekimenez edo goragokoaren aginduz, beste organo batzuen eskari arrazoituei erantzunez edo salaketa baten

ondorioz. Jasotako dirulaguntza itzuli egin beharko da, beharrezko den dosierra izapidetu ondoren, kasu hauetan:

- Dirulaguntza zertarako eskatu zuten, hartarako erabili ez badute.
- Eskabidean emandako datuak edo aurkeztutako agiriak faltsutu egin badituzte.
- Laguntza ematea arrazoitu duten zirkunstantziak desagertzen badira.
- Finkatutako betebeharrak bete ez badituzte.
- Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantzaren 20. artikuluan adierazten diren beste kasuetan.

Halaber, onuradunek diruz lagundutako gastuen kostuaren gainean lortutako soberakina itzuli egin beharko dute.

Hamabigarrena. Dirulaguntza itzultzeko prozedura

1. Vitoria-Gasteizko Udalaren Dirulaguntzei buruzko ordenantzaren 23. artikuluan xedatutakora egokituko da emandako dirulaguntza osoa edo haren zati bat itzultzeko prozedura.

2. Udaleko Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailaren kontu-korrontean sartu beharko da diru hori.

Hamahirugarrena. Arau-hausteak eta zigorrak

Vitoria-Gasteizko Udalaren Dirulaguntzei buruzko ordenantzan xedatutakora egokituko da arau-hauste eta zigorren erregimena.

Hamalagarrena. Interpretatzea

1. Oinarri hauen interpretazioan sor daitekeen edozein zalantza Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saileko zinegotzi ordezkariak argituko du.

2. Oinarri hauetan aurreikusi gabekoetan, Vitoria-Gasteizko Udalaren Dirulaguntzei eta Laguntzei buruzko Udal Ordenantza hartuko da kontuan, baita Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea eta horren araudia ere — uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bitartez onetsia—, eta aplikagarri diren gainerako araudietan xedatutakoa.



Baliabide ekonomiko eskaseko pentsiodunei energia-gastuari aurre egiteko laguntzaren eskabidea

Solicitud de Ayudas destinadas a financiar el gasto energético de las personas pensionistas con escasos recursos económicos

ESKATZAILEAREN DATUAK - DATOS DE LA PERSONA SOLICITANTE			
<i>Izen-deiturak</i> Apellidos y nombre			
<i>NANa/AIZ/Pasaporte</i> D.N.I./N.I.E./Pasaporte			
<i>Helbidea</i> Domicilio			
<i>Posta kodea</i> C.Postal		<i>Posta elektronikoa</i> Correo electrónico	
<i>Telefonoa (1)</i> Teléfono de contacto 1		<i>Telefonoa (2)</i> Teléfono de contacto 2	

Eskatutako laguntza emanez gero, kontu honetan ordain dakion baimena ematen du eskatzaileak

La persona solicitante autoriza, en caso de ser concedida la ayuda solicitada, sea abonada en el n° de cuenta

ENTITATEA / ENTIDAD	BULEGOA / OFICINA	KD/ DC	KONTUAREN ZENBAKIA / NÚMERO DE CUENTA

Aurkeztutako agiriak / Documentos presentados	
	<i>Eskabidea hirugarren batek aurkeztuz gero, interesatuaren ordezkariaren egiaztatzea / Acreditación de la representación de la persona interesada en caso de presentación de la solicitud por tercero</i>
	<i>Eskatzailea ageri den banku-agiriaren fotokopia / Fotocopia del documento bancario donde figura la persona solicitante</i>
	<i>Horniketaren kontratua edo elektrizitate, gas edo beste erregairen baten egindako gastuen azken ordainagiria, baita ordainketa-egiaztatzea ere. Contrato o último recibo de gastos de electricidad, gas u otros combustibles, así como justificante de pago</i>
	<i>Energia-gastuak izatearen erantzukizunpeko aitormena / Declaración responsable de soportar gastos de consumo energético</i>
	<i>Bonu sozialaren eskabidearen kopia edo ebazpena / Fotocopia de la solicitud y/o resolución del bono social</i>
	<i>Besterik / Otros:</i>

(1)

Eskabidea sinatu aurretik, datu babesari buruzko informazioa ikusi hemen: hurrengo orrialdean.

Antes de firmar la solicitud, debe leer la información básica sobre protección de datos que se presenta en la página siguiente.

VITORIA-GASTEIZ. 20 de noviembre de 2019
GASTEIZen, 2019(e)ko azaroaren 20(e)an

Fdo / Izp.:



INFORMAZIOA, ADMINISTRAZIOAK AGIRIAK KONTSULTATZEARI BURUZ INFORMACIÓN SOBRE CONSULTA DE DOCUMENTOS POR PARTE DE LA ADMINISTRACIÓN

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28. artikulua dioenez, "Interesdunak ez daude beharrik jada diharduen administrazioaren esku dauden dokumentuak edo beste administrazioaren batek eginak direnak eskuratzera". Gasteizko Udala dokumentu horiek kontsultatu edo eskuratu ahaliko ditu, interesdunak aurka egin ezean.

Gasteizko Udala burutzen duen datu pertsonalen tratamendua zilegi da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduen 6.1 e) artikulua araberak, zeinak, hitze hitz, hauxe baititu: "Tratamendua beharrezkoa bada interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleututako botere publikoaren izenean burututako eginkizun bat betetzeko).

Aurka egin nahi izatera, interesdunak justifikatu egin beharko ditu horretarako arrazoiak (2016/679 (EB) Erregelamenduen 21. artikulua).

Gasteizko Udala agiri hauek eskatuko dizkie dagozkien erakundeak:

-Diru-sarrerak bermatzeko errenta (DBE) Lanbideri (Eusko Jauriaritza), Pentsiodunen modalitatean.

Aurka egiteko eskubidea: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduen 21. artikulua araberak, ni,
 ... jauna/anderea, parentesi artean adierazitako kontsultaren aurka nago
 (.....)
), arrazoi
 hauengatik:

La Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las AAPP en su artículo 28 establece que los interesados tienen derecho a no aportar documentos que ya se encuentren en poder de la Administración actuante o hayan sido elaborados por cualquier otra Administración. El Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz podrá consultar o recabar dichos documentos salvo que el interesado se opusiera a ello.

El tratamiento de los datos de carácter personal por parte del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz queda legitimado en el cumplimiento de una misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos conferidos al propio Ayuntamiento, en los términos previstos en el artículo 6.1 e) del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016.

En caso de oposición, es necesario que justifique las razones de su oposición (art. 21 del Reglamento (UE) 2016/679 de Protección de Datos).

Documentación a recabar por el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz:

-Renta de Garantía de Ingresos (RGI) de Lanbide (Gobierno Vasco) en modalidad de complemento de pensiones.

Derecho de oposición: al amparo del artículo 21 del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016

yo D/Dª
 , con DNI me opongo a la consulta de
 Por los siguientes motivos:

DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA INFORMACIÓN SOBRE EL TRATAMIENTO DE DATOS PERSONALES

Tratamenduaren arduraduna <i>Responsable del tratamiento</i>	Vitoria-Gasteizko Udala - Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz (IFK- CIF: P0106800F)
Tratamenduaren arduradunaren kontaktu datuak <i>Contacto del Responsable del tratamiento</i>	Calle Pintor Teodoro Dublang kalea, 25 01008 Vitoria-Gasteiz, Álava 945 161 616 - informacion@vitoria-gasteiz.org - www.vitoria-gasteiz.org
Datuak Babesteko Ordezkararen kontaktu datuak <i>Contacto de la Delegada de Protección de Datos</i>	dbo-dpd@vitoria-gasteiz.org
Tratamenduaren xedeak <i>Finalidad del tratamiento</i>	Energia-gastua finantzatzeko laguntza-eskabidei dagokienez herritarren eskakizunak artatzea, deialdian aurreikusitakoarekin bat etorrira. <i>Atender las solicitudes de la ciudadanía en relación a las Ayudas para financiar el gasto energético de acuerdo con lo previsto en su convocatoria.</i>
Tratamenduaren legitimazioa edo oinarri juridikoa <i>Legitimación o base jurídica del tratamiento</i>	Botere publikoak baliatzea, Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorrean aurreikusitakoarekin bat <i>Ejercicio de poderes públicos de conformidad a lo previsto en la Ley 38/2003 General de Subvenciones.</i>
Hartzaileak <i>Destinatarios</i>	Datuak ez zaizkio inori emango, legeak behartuta edo interesdunak baimenduta ez bada. <i>Los datos no serán facilitados a terceros salvo obligación legal o consentimiento de la persona interesada.</i>
Gordetzeko epea <i>Plazo de conservación</i>	Udalaren eskumenak eta funtzioak baliatuta lortutako datuen xedea betetzeko behar den boron gordeko dira datu horiek, eta beti ere, lege ezarritako mantentze-, preskripzio- eta erantzukizunetarako argitze-epean. <i>Durante el tiempo necesario para el cumplimiento de las finalidades para los que fueron obtenidos en ejercicio de competencias y funciones del Ayuntamiento y en todo caso durante los plazos de conservación, prescripción y depuración de responsabilidades legalmente previstas.</i>
Pertsonen eskubideak <i>Derechos de las personas</i>	Datuak babesteko delegatuaren bitartez, pertsona interesatuak datuak ikusi ditzake, aldatzeko eskatu, edo, hala behar bada, datuak ezeztatzeko eskatu, horien kontra agertu edo tratamendua mugatzeko eskatu. <i>Las personas interesadas pueden acceder a sus datos, solicitar su rectificación o, en su caso, supresión, oposición o limitación de tratamiento, a través de la Delegada de Protección de Datos.</i>